

# GRADUA: EKONOMIA

2014/2015 ikasturtea

## ERRENTA DESBERDINTASUNAK GENERO IKUSPUNTUTIK KRISI GARAIAN: Espainian eta EAEn

Egilea: Olatz Errazkin Iburguren

Zuzendaria: Mercedes Larrañaga Sarriegi

Data eta sinadura.- Bilbo, 2015(e)ko ekainaren 25(a)



## AURKIBIDEA

---

0) LABURPENA .....	4
1) SARRERA .....	4
2) EMAKUMEAK LAN MERKATUAN HAUSNARKETA LABURRA.....	7
3) KRISI EKONOMIKOAREN NONDIK NORAKOAK ETA BERE ERAGINAK .....	8
3.1 Sorreraren zergatiak .....	8
3.2 Krisiaren eragina jendartean genero ikuspuntutik .....	9
4) GENERO DESBERDINTASUNAK LAN MERKATUAN, SOLDATA ETA ERRENTAN ZENTRATUZ (Espainia eta EAE).....	10
4.1 Sexu diskriminazioa soldatetan .....	10
4.2 Beste adierazle batzuk.....	18
5) HAUSNARKETAK ETA ERRONKAK.....	25
5.1 Sindikatu desberdinen iritzia .....	25
5.2 Gaur egun mahai gainean dauden gaiak .....	28
5.2.1 <i>Espainia</i> .....	29
5.2.2 <i>EAE</i> .....	30
6) ONDORIOAK.....	31
7) ERANSKINA .....	32
8) BIBLIOGRAFIA .....	33

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

---

GRAFIKO 1: 2008ko burtsaren porrota.....	8
GRAFIKO 2: Espainia. Langile bakoitzeko urteroko batz besteko diru-sarrerak. (2008-2012).....	14
GRAFIKO 3: EAE. Langile bakoitzeko urteroko batz besteko diru-sarrerak (2008-2012).....	15

## TAULEN AURKIBIDEA

---

TAULA 1: Soldata egiturari buruzko urteroko inkesta. Langileko urteko batz besteko diru sarrerak. 2008-2012 multzoa.....	11
TAULA 2: Langileen urteko errenta, gutxieneko soldata (SMI) aldizka kontuan hartuz.....	17
TAULA 3: Gini indizea errenta koefizientearen baliokidea (2007-2013).....	20
TAULA 4: S80/S20 errenta ratioa sexuaren eta hautatutako urteetan (2007-2013).....	22
TAULA 5: Pobrezia arriskua, adina eta sexua kontuan hartuta (Espainia).....	24

## 0) LABURPENA

Betidanik emakumeak ordaindu gabeko lanetan (soldatarik gabe) neurri handiagoan agertu izan dira eta agertzen jarraitzen dute oraindik ere. Honen arrazoa lanaren sexu araberako zatiketa da, hau dela eta, emakumeek esku-hartze urria gauzatzen dutelako soldataren truke. Egia esan egun, ezaugarri hauek aldatzen doaz pixkanaka. Alde batetik, estatistikek erakusten dutenez, gero eta emakume gehiago dira soldatapeko lanetan aritzen direnak. Bestetik, gizonezkoak ere ari dira beren gain hartzen etxeko ardurak, baina oraindik ere hemen gauza asko dago aldatzeko, emakumeek jarraitzen baitute betebeharrak garrantzitsuenez arduratzen eta aldaketa prozesu honen erritmoa oso motela baita. (Rodríguez Arantxa eta Larrañaga Mercedes, 2012)

Azken urteetan bizi dugun egoera honetan (lan merkatu krisi sakonenean) gertatu da, emakumeak soldatapeko lanean inoiz baino gehiago sartzea. Krisiak ordea, berarekin dakartza ondorio txarrak eta ikusi den bezala, hauek zuzenean eragin diete emakumeei. Izan ere, langabezia tasa altuagoak, kontratu iragankortasunak, jardunaldi partzialak eta soldata txikiagoak jasaten lehenak emakumeak dira. Lan berdintasuna lortzeko, emakumeek beste zeregin batzuk utzi behar dituzte, hain zuzen ere, gizonezkoek dagozkienak. Honez gain, gizarteak kolektiboki bere gain hartu behar ditu gaur egun emakumeek alor pribatuetan betetzen dituzten zaintza eta ongizate funtzioak.

## 1) SARRERA

Historian zehar beti egon izan dira emakumeak gizonezkoen azpitik. Betidanik egon da banatuta bata zein bestearen lan eginkizuna. Planeta osoan, oro har, lanaren sexukako banaketa argia eta eztabaida ezina izan da. Iparraldean zein hegoaldean, etxera dirua ekartzaren rola, hau da, etxetik kanpo lan egitearen eginkizuna gizonek izan dute. Emakumeak aldiz, etxeko lanetara mugatu izan dira, esan daiteke gizonezkoek duten rol horrek behartu izan dituela emakumeak etxeko lan gehienek ardurak hartzea.

Emakumeen diskriminazio egoera lanean nolakoa den jakiteaz interesatuta, lan honen helburua, emakumeen egoera lan merkatuan gaur egun bizitzen ari garen krisiaren eraginez aztertzea da Espainian eta batez ere, EAEn (Euskal Autonomi Erkidegoan). Horretarako, errentan eta bereziki soldatetan zentratu naiz.

Betidanik gizon eta emakumeen artean egon diren desberdintasun ekonomikoek gaur egun oraindik jarraitzen al dute? Nolakoa da krisi aurretik eta ondoren bi sexuen artean dagoen errenta, eta batez ere, soldata desberdintasuna? Zeintzuk dira berdintasun laboralera iristeko konpondu beharreko lehentasunak? Ze proposamen dituzte alderdi politikoek gaiaren inguruan? Lan honetan galdera hauek eta beste batzuk erantzuten saiatu naiz. Izan ere, gradu amaierako lana emakumeen lan merkatuko egoeraren inguruan egitea oso interesgarria iruditu zitzaidan, horregatik aukeratu nuen gai hau, nahiz eta hasiera batean beste ideia batzuk nituen buruan.

Historiak erakutsi digunez, beti egon dira gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak, bai sozialki, politikoki... baina ni ekonomikoetan zentratu naiz, izan ere gaur egun benetan emakumeen egoera ekonomikoa nolakoa zen jakiteko interesa piztu zitzaidan. Beraz, pixkanaka informazio iturri desberdinak kontsultatu eta aztertzen hasi nintzen.

Hasieran kostatzen zitzaidan zertan zentratu nahi nuen lana erabakitzea. Esango nuke gehien kostatu zaidan gauzetariko bat izan dela lanaren eskema egitea. Baina behin marko teorikoa garbi nuela errazagoa izan zitzaidan nuen informazio guztia ordenatzea.

Lehenengo pausoa, informazio iturri desberdin eta fidagarriak kontsultatzea izan zen. Honekin batera, liburutegiko liburu batzuk eta hainbat artikulua interesgarri irakurri nituen. Behin hau eginda, lana pixkanaka garatzen joan nintzen.

Lan honetan niretzat oso interesgarria den atal bat aurkitzen da, hain zuzen ere, sindikatuen iritzia. Atal hau egitearen ideia Mertxek proposatu zidan eta buelta batzuk eman ostean oso ideia ona zela iruditu zitzaidan. Egia esateko, espero nuena baina denbora gehiago pasatu nuen atal hau egiten. Izan ere, sindikatuarekin kontaktuan jartzea eta hauek niretzat tartetxo bat hartzea ez zen lan erraza izan. Honez gain, elkarrizketa egiteko, desberdintasunen inguruan galderak prestatu behar izan nituen, eta guzti honek, denbora kendu zidan. Gainera arazotxo bat izan nuen, UGTkoek erantzunik ez zidatenez ematen, ELA, LAB eta CCOO-koez gain beste sindikatu batekin jarri behar izan nuelako harremanetan, eta horrela, ESK-koekin kontaktatu nuen baina bitartean denbora pasa zen.

Elkarrizketak bi modutan egin nituen, pertsonalki eta korreo bidez. Hasierako nire helburua sindikatu guztiekin pertsonalki biltzea zen baina bai beraientzat eta bai niretzat erosoagoa zenez, korreoz galderak pasata erantzun zidaten. ELA

sindikatuarekin bakarrik egin nuen elkarrizketa pertsonalki eta hau hurbiltasunagatik eta berak elkartzeko erakutsitako interesagatik izan zen.

Aipatzekoa da, erantzunak jaso eta irakurri ostean sindikatu guztiek gaiaren inguruan antzeko iritzia dutela jakitea. Modu batera edo bestera, ados daude emakumeak oraindik gizonezkoen azpitik daudela lan merkatuan eta berdintasunera heltzeko lanean jarraitu beharra dagoela.

Azpmarratzekoa den beste atal bat, gaur egun mahai gainean dauden gaiak dira. Aurten hauteskundeak izan direla eta, alderdi bakoitzak emakumeen inguruan dituzten proposamenak zeintzuk diren ezagutzea ondo dagoela iruditu zait, izan ere oso modan dagoen gaia da, eta horretan zentratu naiz.

Lan hau egiteko, bilaketa bibliografikoan oinarritu naiz eta beharrezkoa izan dut hainbat liburu, artikulua eta txosten kontsultatzea. Honez gain, Espainiako eta EAeko soldata eta errentaren azterketa bat egin dut, bereziki EAEn zentratuz, eta behar nituen datuak lortzeko INE (Instituto Nacional de Estadística) datu basea erabili dut eta baita Eurostat (Oficina Europea de Estadística) ere. Gainera, indize desberdin batzuk aztertu ditut, hala nola Gini Indizea eta S80/S20 indizea. Guzti hau kontuan hartuta, lana atal desberdinetan banatu dut, hain justu, kapitulutan.

Lehenengo eta behin, emakumeen bilakaera lan historian aztertuko dut, 60-70 hamarkadatik onako egoera nola aldatu den ikusteko, hau lehenengo kapituluan agertzen da.

2. kapituluan, gaur egungo krisi ekonomikoaren bilakaera azaldu dut eta ondoren honek emakumeengan izan duen eragina zein den ikusi.

Jarraian, 3. kapituluan, gizon eta emakumeen desberdintasunak aztertu ditut eta horretarako INE datu basea erabili dut. Harez gain, Gini eta S80/S20 indizeak ere erabili ditut, datuak Eurostatetik lortuz.

4. kapituluan gaiari buruzko sindikatu desberdinen iritzia sartu dut eta baita gaur egun mahai gainean dauden gaiak ere.

Bukatzeko, lana egin ostean atera ditudan ondorioak azaldu ditut.

## 2) EMAKUMEAK LAN MERKATUAN HAUSNARKETA LABURRA

Carrasco Bengoak “*Con Voz Propia*” liburuan beste historiagile batzuen hitzak berrartuz argi azaltzen du XIX.en mendean erdi mailako familietan zegoen egoera ekonomiko zaila. Garai hartan ez zen nahikoa gizonezkoek etxera eramaten zuten diru sarrera. Horri gehitu zitzaion garai hartako Lehen Olatua izenarekin ezaguna den feminismoaren lehen iraultza. Bertan eskatzen zituzten eskubideak, legalak, zibilak eta ekonomikoak ziren, azken horiek lantzen ari naizen lanarekin zuzenki lotuta. (Carrasco Bengoa, 2014)

60 eta 70.en hamarkadetan etxeko lanei buruzko eztabaidak indar handia hartu zuen. Eztabaida hori, batez ere, herrialde garatuetan, mugimendu feministarekin sortu zen, eta geroago “feminismo akademikoak” bere gain hartu zuen. Pertsona marxista eta feministen artean hamarkada batez eztabaidan aritu ondoren, ez zen ondorio garbirik atera. Hala ere, interes eta helburu batzuk finkatuta geratu ziren, eta horiek ekonomia feministarekin aurrera jarraitzeko balioko zuten. Honek, batez ere, azken hiru hamarkadetan izan du oihartzuna.

Etxeko lanei dagokienez, etxean burututako edozein lan (zaintza edo etxeko lana), merkatutik kanpokoa izateagatik ordaindu gabea da, hori ekonomiak ez duelako behin ere kategoria ekonomikotzat hartu da. Beraz, emakumeak izan direnez batez ere horietaz arduratu direnak, ez dute ordainsaririk jaso eta gainera sarritan gutxietsiak izan dira. Hori guztia kontuan hartuz, planteamendu heterodoxoenek merkatuko ekonomia kapitalistan dauden desberdintasunak salatzen dituzte, hala nola, pobrezia, errenta desberdintasunak, ongizate estatuen falta etab. Baina ez dituzte beren analisietan sartzen etxeko eta zaintza lanak eta ezta, emakume eta gizonen artean sortzen diren desberdintasunak ere, aipatutako lan horiek emakumeei esleitzen zaizkienean. Horrela beraz, lantzat, merkatuko lana bakarrik hartzen da eta honek lana, enpleguaren sinonimo bihurtzen du.

Etxeko lanak alde batera utzita, aurretik aipatu bezala, emakumeak lan mundura salto egitearen arrazoia ekonomikoa izan zen, baina baita emakumeen eskubideak defendatzea ere. Lan handiaren poderioz joan da emakumea gizartean bere lekua egiten, eta lan munduan muturra sartzen. Azken urteetan aurrera pausu handiak egon dira, eta asko dira lan merkatuan lanean diharduten emakumeak.

## 3) KRISI EKONOMIKOAREN NONDIK NORAKOAK ETA BERE ERAGINAK

### 3.1 Sorreraren zergatiak

Amerikako Estatu Batuetan (AEB) sortutako krisi finantzarioa azken hamarkadetan izan den krisirik larrienetakoa da. 2008ko irailean azaleratu zen, AEBko zenbait entitate finantzarioen fusio, erreskate eta kiebrearekin. Krisia, inbertsio bankuen, aseguru etheen eta mailegu emaileen ezegonkortasun finantzarioak ekarri zuen, krisia sortzearen arrazoia AEBtan sortutako *subprime* hipotekak (itzultzeko modurik ez zuten pertsonen emandako arrisku handiko maileguak) izanik. Geroago, atzeraldi sakon bat izateko beldurra mundu osora zabaldu zen.

Lehen esan dudan bezala, badirudi finantza ezegonkortasuna subprime hipoteken ondorioz hasi zela, baina egoera larriagotu egin zen beste faktore ekonomiko batzuegatik: etxebizitzaren prezioaren beherakada, oinarritzko produktuen (bereziki elikagaien eta petrolioaren) prezioen igoera, kontsumoaren beherakada, enplegu galtzeak, esportatzaileen zailtasunak maileguak lortzerako orduan eta inflazioaren gorakadarengatik, besteak beste. (Pérez Guillermo, 2008)

Krisiaren eragina berehala zabaldu zen munduko herrialde guztietara ondorio larriak ekarriz. Gehien kolpatu dituen herrialdeak batez ere Islandia, Irlanda, Grezia, Portugal eta Espainia izan dira. (El Mundo, 2008)

Aipatu beharra dago, krisiak eragindako efektuak desberdinak izan direla herrialde guztietan. Jardueraren beherakada ikaragarria ordea hain orokorra izan da mundu osoan, non esan daitekeen langabeziaren gorakada eta lan baldintza eskasak izatea ere orokorrak direla.

Honako grafiko honetan 2004tik 2008ra maiatza eta iraila kontuan hartuz, burtsaren bilakaera agertzen da. Bertan argi ikusten da burtsak, 2004tik aurrera hazkunde handia izan zuela 2008rarte, nahiz eta tartean gora behera batzuk izan, bereziki 2007 urte inguruan. Urte honetan jadanik krisi baten zurrumurrua





bazegoen ere, benetan egoera 2008ko irailean lehertu zen eta gaur egun oraindik, krisi ekonomiko hori jasaten ari gara.

### 3.2 Krisiaren eragina jendartean genero ikuspuntutik

Gizon eta emakumeen gaineko efektuak desberdinak dira bi fenomenoren ondorioz, horrela diote Lina Gálvez Muñoz eta Juan Torres Lópezek “*Desiguales mujeres y hombres en la crisis financiera*” liburuan. Alde batetik, bien jatorrizko egoera lan merkatuan desberdina da. Bestetik, krisiak modu desberdinetan eragin die. (Gálvez Lina & Torres Juan, 2010)

Hau kontuan hartuta, gaur egun mundu osoan bizi dugun krisi-ekonomiko honetan, beharrezko dugu krisiaren alderdi batzuk aztertzea; krisiak zer eragin duen enpleguan, osasunean, pobrezian, etxeko lanetan eta ordaindu gabeko zainketa-lanetan, hauek erabakigarriak baitira genero ikuspegia kontuan hartuz aztertzeko. Krisiaren ondorioz, eremu horietan sortzen diren egoerek zuzeneko eragina dute emakumeen bizitzakalitatean, ikaragarri jaisten baita berau. (Emakunde, 1995)

Emakumeen formazioan egon diren aurrerapenak eta hauen interesa, modu jarraitu batean merkatuan parte hartzeko nolakoak diren ikusita, gizon eta emakumeen arteko desberdintasun laboralen amaierarekin pentsa daiteke, baina egia esan ez da horrela gertatu. Hau da, emakumezkoen lan eskaintzak izan duen aldaketa ez da hobekuntza bat izan, (ez espero litekeen neurrian behintzat) emakumeek lan merkatuan betetzen dituzten lan postuetan. Egia da desberdintasun adierazleak banan-banan begiratzen badira, egoerak bilakaera izan duela, baina datuek ez dute gezurrik esaten eta oraindik desberdintasunak jarraitzen dute egoten eta krisi garaian oraindik eta nabarmenagoak dira. (Larrañaga Sarriegi Mercedes, 2002)

Krisi garaian nabari den emakumeen parte hartzeak merkatuan, beraien ongizatea eta lan merkatuan aukerak murriztea dakar, izan ere lan segregazioa eta lanaldi partzial eta aldi baterako lanaldiak sendotzen dira. Honek, segurtasun eza kontratuetan eta ekonomia beltzean lan egitea areagotzen ditu. Azken honek bizitzaren zikloan duen ondorio nagusia, kotizazioei esker etorkizunean jaso ahal diren onurak ezin jaso izatea da. Egoera honek eraginda, emakumeek familian diskriminazioa jasaten dute, izan ere, soldata baxuago bat eta baliabide txarragoak izategatik beraien negoziaketa ahalmena

familian murriztu egiten da eta horrek kasu batzuetan, lan postua uztera eramaten dituzte.

## **4) GENERO DESBERDINTASUNAK LAN MERKATUAN, SOLDATA ETA ERRENTAN ZENTRATUZ (Espainia eta EAE)**

Emakumeen egoera lan baldintzei dagokienez gizonezkoena baino okerragoa dela jada aipatu dut eta gogorarazi behar da horrek eraginda, langabezia dauden emakumeen egoera ere gizonena baino okerragoa dela. Babes txikiagoa, denbora aldetik kontratu laburragoak... hauek lanean duten egoera okerragoa delako gertatzen dira.

Gaur egun, lanean egonkortasun falta, gehiago gertatzen da emakumeetan gizonetan baino. Emakumeak daude batez ere lanaldi partzialeko enpleguetan, eta horietan aldi baterako enpleguak dituzten gehienak ere emakumeak dira. Horrez gain, jarduera-tasa baxuagoa eta lan segregazioa (banaketa) ere jasaten dute emakumeek. Krisiak gehienbat gizonak aritzen diren sektoreetan eragin du, bereziki, eraikuntzan edo automobilen sektorean, eta horregatik gizonen langabezia gehiago igo da emakumeena baino. Baina, oraindik ere handia da gizonen enplegu-tasaren eta emakumeen enplegu-tasaren arteko aldea.

Hau horrela, nire lanarekin lotuta, Espainiako eta batez ere Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) soldata eta errentei buruzko datuak nolakoak diren ikusiko dut horrela gizon eta emakumeen desberdintasunei buruzko ondorio batzuk ateratzeko. Horretarako, INE-k et Eurostatek eskainitako datuez baliatuko naiz.

### **4.1 Sexu diskriminazioa soldatetan**

Soldatak desberdintasun iraunkorrak dira. Sistematikoki leku guztietan, emakumeen soldatak baxuagoak dira gizonezkoenak baino. Expansión aldizkariak 2012an argitaratu zuen “*Emakume langileak, beti krisian*” buruzko artikulu batean argi agertzen da, Espainian batz bestea emakumeek, gizonek baino %16 gutxiago kobratzen dutela Europako Parlamentuak egindako ikerketa baten arabera. (Ormaetxea Amaia, 07/03/2012)

Aipatutako desberdintasun horretan eta beste hainbatetan faktore askok dute eragina, esaterako, bata nahiz besteak okupatutako lan postuari emandako balore desberdina, lan segregazioa, antzintasuna, lan egindako ordu kopurua...Hau dela eta, hainbat azpi atal landuko ditut. (Rueda Narváez, 2010)

### ***Sexua eta kontratu mota***

#### **TAULA 1: Soldata egiturari buruzko urteroko inkesta. Langileko urteko batz besteko diru sarrerak. 2008-2012 multzoa. Unitateak: euroak**

Ondorengo, taula honetan Espainiar estatuko eta EAEko sexu eta kontratu motei buruzko datuak ikus ditzakegu, hain zuzen ere, iraupen mugagabea eta iraupen mugatua kontuan hartuz eta unitateak euroak izanik, langileko urteko batz besteko diru sarrerak agertzen zaizkigu.

	Emakumeak	Gizonak	Arraila
<i>2008</i>			
<b>Espainia</b>			
Iraupen mugagabea	20008	26329	%24
Iraupen mugatua	15069	17062	%12
<b>EAE</b>			
Iraupen mugagabea	22759	30794	%26
Iraupen mugatua	18684	19657	%5
<i>2010</i>			
<b>Espainia</b>			
Iraupen mugagabea	20987	27676	%24
Iraupen mugatua	15553	17739	%12
<b>EAE</b>			
Iraupen mugagabea	24089	32532	%26
Iraupen mugatua	18635	20175	%8
<i>2012</i>			
<b>Espainia</b>			
Iraupen mugagabea	20632	27608	%25
Iraupen mugatua	14891	16880	%12
<b>EAE</b>			
Iraupen mugagabea	23384	32460	%28
Iraupen mugatua	18038	19707	%8

Iturria: INE. Soldata egiturari buruzko inkesta. Sexua eta kontratu mota. Norberak egin da

Krisi batekin soldatak jatsi egiten direla pentsatzen da beti, baina ikusten da emakumeetan nahiz gizonetan soldata orokorrak ez direla jaitsi. Hipotesi bezala pentsa dezakegu, soldata oso altuak dituztenak ez direnez jaitsi edo igo egin direnez, eta baxuak dituztenak oraindik eta gehiago jaitsi direnez, batz bestekoak ez direla jaitsi.

Espainiako datuei begiratzen badiegu 2008tik 2012ra, bai iraupen mugagabeen eta bai iraupen mugatuen diru-sarrera handiagoak dituztenak gizonezkoak dira. Hala ere, esan beharra dago badagoela aldea bi sexuentzat kontratu mota bat izan edo bestea izan. Izan ere, iraupen mugatuen adibidez 2008an, emakumeek 15069€ irabazi zituzten urtean eta iraupen mugagabeen berriz 20008€. Gizonezkoek berriz, iraupen mugatuen 17062€ eta iraupen mugagabeen 26329€. Beraz, iraupen mugatuen bi sexuek gutxiago irabazten dute, nahiz eta beti gizonek emakumeak baino gehiago irabazi.

Aipatu beharra dago, iraupen mugatuko kontratuak asko hazi direla krisia hasi zenetik eta horrek langileen soldata ere, aldi batekoa bakarrik izatea egiten du. Honek esan nahi du balitekeela familia askok lehen zituzten ondasun eta zerbitzu berdinak lortzeko zailtasunak izatea eta ondorioz beren bizi maila eta bizi kalitatea jaitea.

EAEen ere antzeko zerbait gertatzen dela esan daiteke, hau da, bi kontratu motetan diru-sarrera handiagoak dituztenak gizonezkoak dira. Baina estatuko datuekin konparatzen badugu, EAEen iraupen mugagabeen bi sexuek gehiago irabazten dutela ikus daiteke. Adibidez, 2008an EAEen emakumeek iraupen mugagabeko kontratuetan 22759€ irabazi zituzten eta aldiz estatuan 20008€. Diferentzia hori handiagoa izan zen 2010ean. Izan ere, emakumeek EAEen, 24089€ irabazi zituzten eta Espainian 20987€.

Iraupen mugatuen ere gizonezkoek gehiago irabazten dute baina diferentzia hori txikiagoa da. Adibidez, 2012an Espainian iraupen mugatuen emakumeek 14891€ irabazi zuten eta gizonezkoek 16880€. EAEen berriz, soldatak altuagoak, izan ziren, emakumeek 18038€ eta gizonezkoek 19707€. Aipatzekoa da EAEen bi kontratu motei dagokienez soldatak altuagoak direla Espainiakoak baino. Hau izan daiteke EAEko ekonomia orokorrean Espainiakoak baino hobeto joan delako beti. Horregatik, EAEko ongizatea hobeagoa izan da.

Arraiari dagokionez, (soldata desberdintasuna) ondo ikusten da gizonezkoek emakumeek baino gehiago irabazten dutela. Hain zuzen ere, ehunekoei begiratura iraupen mugagabeen, bai Espainian eta bai EAEen, diferentzia handia da.

2008an Espainian iraupen mugagabeko kontratuan, batz bestez gizonezkoek emakumeek baino %24 gehiago irabazi zuten eta iraupen mugatuan %12 gehiago. EAEn iraupen mugagabearen desberdintasuna handiagoa da, hain zuzen ere %26koa, baina iraupen mugatuan desberdintasun hori askoz txikiagoa da %5ekoa, hau EAEn, iraupen mugatuko lana emakumeetan hobeto ordainduta dagoelako da.

2010ean Espainian ez dago aldaketarik. Aldiz EAEn iraupen mugagabea berdindu mantendu zela ikusten da baina iraupen mugatuko kontratuetan 2008an desberdintasuna %5 izatetik, 2010ean %8 izatera pasa zen. Hau izan daiteke krisi garaian lan baldintzak okerrera egin zutelako eta eragin negatiboak batez ere emakumeek jasan dituztelako, hala nola, kaleratzeak, soldata jaitsierak etab.


2012an berriz, Espainian iraupen mugagabearen desberdintasuna zertxobait igo zela ikusten den arren, atentzioa EAEk deitzen du. Izan ere, desberdintasun hori beste urteetan %26 izatetik 2012an %28 izatera pasa zen.

Beraz argi dago, krisi garaian daramazkigun urte guzti hauetan egoerak okerrera egin duela. Ondorioak denentzat izan dira, baina batez ere emakumeek jasan dute gehien. Aurretik aipatu bezala, lan merkatuan, soldata desberdintasuna krisi aurretik bazegoen ere, krisia hasi eta ondorengo urteetan are nabariagoa izan da.

### ***Sexua eta lan sektoreak***

Ondorengo grafiko honetan, langileko urteko batz besteko irabaziaz ikus ditzakegu. Hauek, sexua eta lan sektorea kontuan hartuz eta unitateak euroak direla jakinik, 2008tik 2012rarteko Espainiar estatuko emaitzak dira. Lan sektoreei dagokienez, industria, eraikuntza eta zerbitzuak agertzen dira eta esan behar da INEk ez duela nekazaritza sektoreari buruzko daturik eman.

**GRAFIKO 2: Espainia. Langile bakoitzeko urteroko batz besteko diru-sarrerak.**  
**Unitateak: euroak**



Iturria: INE. Soldata egiturari buruzko inkesta. Lan sektorea eta soldatei buruzko inkesta. Norberak egin da

Orokorrean, lan sektore guztietan gizonezkoek gehiago irabazten dutela ikusten da eta batez ere industrian, gehiago irabazten dute. Sektorearen arabera aldatu egiten da irabazi hori. Adibidez industrian, emakume eta gizonen irabazien arteko desberdintasuna oso nabaria da. Izan ere gizonak, 2008an 25000€-tik gora irabazten zuten eta gainera zifra hori 2010ean eta 2012 bitartean zertxobait igo zen, hau da, hazkundera egon zen, 25500€ irabaztera iritsiz. Aldiz emakumeak 2008an ez ziren iristen 20000€-ra eta urteak pasa ahala, 2012an 20000€-tik pasatzea lortu bazuten ere, gizonezkoekin konparatuz gutxiago irabazten dute.

Esan beharra dago industria sektorean oso emakume gutxi haritu izan dela beti lanean. Honen arrazoiak, betidanik sektore honetan gizonezkoak egin izan dutela lan da eta pixkanaka hau aldatzen badoa ere oraindik gizonezkoak gehiago dira bertan dihardutenak.

Krisiaren ondorioz, eraikuntza da, denetan sektore kolpatuena, krisiak zuzeneko eragina izan du bertan eta grafikoan ikusten da gizon eta emakumeen irabaziak orokorrean baxuagoak direla beste bi sektoreekin konparatuz. Eraikuntzan 2008an gizonezkoek, 20000€ irabazten zituzten urtean eta 2010 eta 2012an zertxobait gehiago. Emakumeek berriz 2008an ia-ia gizonezkoen pare irabazten zuten 20000€ inguru eta 2010ean ere berdinean irabazten jarraitu zuten, baina 2012an gehiago


irabaztera pasa ziren. Esan behar da, industria sektoreari begiratuta desberdintasuna txikia dela, baina hemen ere, gizonetako gehiago irabazten dute.

Zerbitzuen sektoreari dagokionez berriz, 2008tik 2012ra irabaziak ez direla asko aldatu ikusten dugu. Emakumeen irabaziak 2008, 2010 eta 2012an ez ziren 20000€-ra iristen eta gizonetakoak berriz 25000€-koak ziren. Beraz, orokorrean, bi sexuen urteko soldatak nahiko konstante mantendu direla esan dezakegun arren, gizonetako urtean emakumeek baino 5000€ gehiago irabazten zutela ikusten da.

Zerbitzuen sektorea bada ere emakume gehienek lan egiten dutena, esan beharra dago bertan lanpostu hoberenak betetzen dituztenak gizonetakoak direla. Izan ere sarritan, emakumeek maila baxuagoko enpleguak betetzen dituzte titulazioei, ordainsariei eta prestigioari dagokionez eta horregatik beraien lan baldintzak okerragoak dira eta gizonetako baina gutxiago ordaintzen zaie. Emakumeei lan munduan aukera hobek eskaintzea gizartearentzat baliabide egokia eta inbertsio on bat izan behar da. (Mujeres&Cia, 2012)

**GRAFIKO 3: EAE. Langile bakoitzeko urteroko batz besteko diru-sarrerak. Unitateak: euroak**

Grafiko honetan, langileko urteko batz besteko irabaziak ikus ditzakegu. Hauek, sexua eta lan sektorea kontuan hartuz eta unitateak euroak direla jakinik, 2008tik 2012rarteko EAEko emaitzak dira. Lan sektoreei dagokionez, industria, eraikuntza eta zerbitzuak agertzen dira eta hemen ere nekazaritza sektoreari buruzko daturik ez da ageri.



Iturria: INE. Soldata egiturari buruzko inkesta. Lan sektorea eta soldatei buruzko inkesta. Norberak egin da

Espainiako datuetan ikusten zen bezala, hemen ere gizonezkoak emakumezkoak baino gehiago irabazten dutela sektore guztietan garbi ikusten da. Orokorrean sektore guztietan, EAeko urteko irabaziak bi sexuetan estatukoak baino handiagoak dira.

Industria sektorean gizonezkoen urteko bataz besteko irabazietan ez dago gora behera handirik, 2008an 30000€ irabazten zuten eta ondorengo lau urtetan zertxobait igo ziren. Aldiz, emakumeek gizonezkoekin alderatuz, diru-sarrera baxuagoak zituztela ikusten da. 2008an, ez ziren 25000€ irabaztera iristen eta 2012an 25000€tik gora irabaztera pasa arren, gizonezkoen aldean gutxi irabazten zuten

Eraikuntzari dagokionez, bertan lan egiten duten emakumeak gutxi izan dira. INEn datu negatiboak agertzen ziren eta nik horiek kendu eta 0 jarri ditut. Gizonezkoek dagokienez berriz, diru-sarrerak oso konstante mantendu zirela ikusten da 25000€ izanik 2008 eta 2010ean eta zertxobait gehiago 2012an.

Zerbitzuei dagokionez, emakumeen urteko bataz besteko irabazia gizonezkoen aldean oso baxua da 20000€ inguru eta gizonezkoena berriz 2008tik 2012ra igo egin zen 30000€ira iritsiz. Honen arrazoia aurreko grafikoan aipatutakoaren berdina izan daiteke, hau da, baliteke emakumeek zerbitzuen sektorean gizonezkoek baino lanpostu txarragoak betetzea. Hala ere esan beharra dago, EAeko ekonomiaren motorra zerbitzuen sektorea izan dela, izan ere eraikuntzak krisiaren eraginez kolpe gogorra jasan zuen. (La caixa, 2010)

### ***Soldatak, gutxieneko soldatarekin alderatuz***

TAULA 2: Langileen urteko errenta, gutxieneko soldata (SMI) aldizka kontuan hartuz. Unitatea: ehunekoa

Grafiko honetan langileen urteko errenta, gutxieneko soldata kontuan hartuz ikusten da. Hain zuzen ere, 2010, 2011 eta 2012ko datuak agertzen dira.



	Emakumeen %			Gizonezkoen %		
	2010	2011	2012	2010	2011	2012
De 0 a 2 SMI	54	54	55	35	34	35
De 2 a 3 SMI	23	24	23	30	29	29
De 3 a 4 SMI	10	11	10	15	15	15
De 4 a 7 SMI	8	8	7	14	15	14

Iturria: INE. Soldatak, errenta, gizarte kohesioa. Norberak egin da

Gutxieneko soldata minimoak, langile bakoitzak lanaldi juridikoari dagokionez jasoko duen gutxieneko ordainsaria finkatzen du, inolako sexu eta adin bereizketarik gabe eta langile horren kontratua iraupen mugatukoa edo mugagabekoa den kontuan hartu gabe.

Gutxieneko soldatak hartuko duen balioa urtero Gobernuak finkatzen du Errege Dekretu bidez. Horretarako kontuan hartzen dira, KPI (Kontsumorako Prezioen Indizea), lortutako nazioko produktibitatearen batz bestekoa edo lan-kuota handitzea errenta nazionalen.

Taula honetan agertzen diren (0tik 2ra), (2tik 3ra), (3tik 4ra) eta (4tik 7ra) soldata minimoaren azpitik, parean eta hau baino gehiago kobratzen duten gizon eta emakumeen ehunekoa zenbatekoa den ikusteko sailkapena da.

2010an gutxieneko soldata hilean 633,30 € zen, hau da, urtean 7599,6 €, kantitate hori urtero pixkanaka handitzen joaten da, 2012an 641,40€ zen hilean, beraz urtean 7696,80€koa. Nahiz eta INE-ko datuak 2012rartekoak izan, badakigu 2015eko soldata minimoa hilean 648,60€ dela, urtean 9080,40€ baina ez dakizkigu hau baino gehiago eta gutxiago kobratzen duten gizon eta emakumeen %-koak zenbatekoak diren. (V. Andres, 2015)

Datu horiek kontuan hartuta, taulan garbi ikusten da 2010etik 2012 bitartean emakumeen erdiak baino gehiagok soldata baxua zutela. Gizonezkoena aldiz, %35 ingurukoa zen, beraz bien arteko aldea handia zen.

2tik 3ra, hau da, soldata minimoa baino zertxobait gehiago kobratzen dutenen ehunekoa handiagoa da gizonezkoena, hain zuzen ere, 2010ean %30 zen eta ondorengo bi urteetan %29. Emakumezkoen ehunekoa berriz, %23 ingurukoa izan zen, 2011an %24 izanik. Hemen sartzen da soldatetan ematen den genero diskriminazioa, hau da, produktibitate berdina duten langileek, tratu desberdina jasatea, hobeto esan da, soldata desberdina jasotzea. (Rueda Narváez, 2010)

Hurrengo taldean, 3tik 4ra, ehunekoak askoz ere txikiagoak dira. Hemen lanpostuak kargu handiagokoak direla suposatzen da, ( nagusiak, gerenteak, etab. ) beraz soldata ere handiagoa da baina hau jasotzen duten pertsonen ehunekoa baxuagoa. Hala ere, gizonezkoen ehunekoa handiagoa da, %15 izanik hiru urtetan. Aldiz emakumezkoena, %10 inguru da, 2011an %11a izanez eta 2012an berriro ere %10era jaitsiz.

Azkeneko taldean, 4tik 7ra, ehunekoak oso txikiak dira baina beti gizonezkoek gehiago irabazten dute. Kasu honetan gizonezkoen ehunekoak 2010, 2011 eta 2012an aurreko taldeko ia berdinak dira, %15 inguru. Baina emakumezkoena jatsi egin da, %10 ingurutik %8 ingurura.

Beraz, ondoriozta dezakegu gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago irabazten dutela talde guztietan eta gutxieneko soldata edo honen azpitik irabazten duten gehiengoak emakumeak direla.


## 4.2 Beste adierazle batzuk

Soldataz gain, errenta desberdintasuna adierazten duten beste adierazle batzuk ere aztertuko ditut: Gini Indizea eta S80/S20. Bi adierazle hauen datuak Eurostat-etik atera ditut. Izan ere, INEko datuak begiratuta ez nuen inongo erreferentziarik Gini Indizea altua zen edo ez esateko eta beraz, beste orrian agertzen diren koadroekin herrialdeen konparaketa bat egin dezaket.

### *Gini indizea*

Gini Indizea, errenta desberdintasuna neurtzeko erabiltzen den metodo bat da. 0 eta 100 balioen artean neurtzen da. 0 balioak berdintasun totala esan nahi du eta 100 balioak desberdintasun totala. Beraz, errenta desberdintasuna handitzen doan

heinean, Gini Indizea 100 baliora hurbiltzen da eta alderantziz, desberdintasun hori txikitzen doan heinean 0ra hurbilduko da.



Grafikoki ere adierazten da indize hau, Lorenzen kurbaren bitartez. Ardatz bertikalean biztanleriaren ehunekoak jartzen da, aberastasun gutxienetik gehiengora ordenatuta eta ardatz horizontalean irabazien ehunekoak. Banaketa egoki bat existituko balitz, hau da berdintasuna lortuz gero, diagonal bat lortuko litzakete eta alderantziz ez balitz berdintasuna existituko kurba guztiak diagonalaren azpitik egon beharko luke. Orduan “a” lurraldearen banaketan

berdintasun perfektua adierazten duen diagonal izango litzateke eta “b” diagonal horren azpitik dagoen kurba. Orduan koefizientea honako hau da: (Joan, 2014)

$$Gini\ Indizea: a/(a+b)$$

**TAULA 3: Gini indizea errenta koefizientearen baliokidea (2007-2013)**

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
EU (27 herrialde)	30,6	30,9	30,5	30,4	30,7	30,4	30,5
Belgika	26,3	27,5	26,4	26,6	26,3	26,5	25,9
Bulgaria	35,3	35,9	33,4	33,2	35	33,6	35,4
Txekiar Errepublika	25,3	24,7	25,1	24,9	25,2	24,9	24,6
Danimarka	25,2	25,1	26,9	26,9	27,8	28,1	27,5
Alemania	30,4	30,2	29,1	29,3	29	28,3	29,7
Estonia	33,4	30,9	31,4	31,3	31,9	32,5	32,9
Irlanda	31,3	29,9	28,8	30,7	29,8	29,9	30
Grezia	34,3	33,4	33,1	32,9	33,5	34,3	34,4
<b>Espainia</b>	<b>31,9</b>	<b>31,9</b>	<b>32,9</b>	<b>33,5</b>	<b>34</b>	<b>34,2</b>	<b>33,7</b>
Frantzia	26,6	29,8	29,9	29,8	30,8	30,5	30,1
Kroazia	29	28	27	31,6	31,2	30,9	30,9
Italia	32,2	31	31,5	31,2	31,9	31,9	32,5
Txipre	29,8	29	29,5	30,1	29,2	31	32,4
Letonia	35,4	37,5	37,5	35,9	35,1	35,7	35,2
Lituania	33,8	34	35,9	37	33	32	34,6
Luxenburgo	27,4	27,7	29,2	27,9	27,2	28	30,4
Hungaria	25,6	25,2	24,7	24,1	26,8	26,9	28
Malta	26,3	28,1	27,4	28,6	27,2	27,1	27,9
Herbehereak	27,6	27,6	27,2	25,5	25,8	25,4	25,1
Austria	26,2	27,7	27,5	28,3	27,4	27,6	27
Polonia	32,2	32	31,4	31,1	31,1	30,9	30,7
Portugal	36,8	35,8	35,4	33,7	34,2	34,5	34,2
Errumania	37,8	36	34,9	33,3	33,2	33,2	34
Eslovenia	23,2	23,4	22,7	23,8	23,8	23,7	24,4
Eslovakia	24,5	23,7	24,8	25,9	25,7	25,3	24,2
Finlandia	26,2	26,3	25,9	25,4	25,8	25,9	25,4
Suedia	23,4	24	24,8	24,1	24,4	24,8	24,9
Erresuma Batua	32,6	33,9	32,4	32,9	33	31,3	30,2

Iturria: Eurostat. Gini indizea

Taula honetan Europar Batasuneko 27 herrialderen errentaren bataz bestekoa kontuan izan da, beste hainbeste herrialderen Gini Indizea agertzen da 2007tik 2013ra bitartean baina 2014 eta 2015eko daturik ez da agertzen.

Esan beharra dago, Europan bataz bestekoak ez duela aldaketa handirik izan 6 urte horietan. Urte bakoitzean, dezimal batzuen gora beheran baina beti 30 inguruan kokatu da Gini Indizea.

Hau kontuan izan da, Espainiari begiratzen badiogu, 2007tik 2013ra Gini Indizea igo egin zela esango dugu, hau da, errenta desberdintasuna hazi egin zen. Urte guztietan Europako bataz bestekoaren gainetik egon zen. Izan ere Europan 30 inguruan zegoenean Espainian 2007an 31,9 zegoen, hau izan zen desberdintasun txikiena egon zen urtea eta 2012an 34,2 izatera iritsi zen, desberdintasun handiena hemen izanik. Hurrengo urtean, 2013an ia-ia puntu bat jatsi zen 33,7an kokatuz eta 2014 eta 2015eko daturik ez da agertzen. Esan bezala, desberdintasun handiena 2012an egon zen eta honen arrazoia krisia izan daiteke. Honek ekarritako ondorioek pertsonen bizi maila eta ongizatea jaitsi dute. Ondorioz, herrialdean langabezia handia egoteak, soldata txikiagoak jasotzeak, etab. krisi aurretik zegoen errenta desberdintasuna handitzea ekarri du.

2007an errenta desberdintasun handiena zuten herrialdeak Errumania, Letonia eta Bulgaria, 37,8, 35,4 eta 35,3 izan ziren. Gainontzeko urteetan ere hiru hauek altuenak izaten jarraitu zuten, baina 2010etik (krisi bete-betean) aurrera beste herrialde batzuk batu ziren, horien artean Espainia.

Europako bataz besteko errentaren azpitik dauden herrialdeak gehiago dira. Horien artean Eslovenia, Suedia eta Eslovakia aipa ditzakegu, 23,2, 23,4 eta 24,5. Hauek 2007tik 2013ra bitartean zertxobait aldatu badira ere, orokorrean ez dute gora behera handirik izan.

Greziaren kasua ere interesgarria da. Mundu mailako krisiak gogorren kolpatutako herrialdea da berau eta argi ikusten da honek utzitako ondorioetako bat errenta desberdintasuna izan dela. 2007an krisiaren atarian, 34,3koa zen desberdintasuna bertan eta ondorengo urteetan jaisten joan bazen ere 2010ean 32,9era iritsiz, 2011tik aurrera berriro ere gora egin zuen 2013an 34,4an kokatuz.

## S80/S20 ratioa

S80/S20 ratioak zera esan nahi du; %20 aberatsenek duten errenta, %20 pobreenek dutena baino zenbat aldiz handiagoa den.

**TAULA 4: S80/S20 errenta ratioa sexuaren eta hautatutako urteetan (2007-2013)**

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
European Union (27 herrialde)	5,0	5,0	4,9	4,9	5,0	4,9	5,0
Belgika	3,9	4,1	3,9	3,9	3,9	4,0	3,8
Bulgaria	7,0	6,5	5,9	5,9	6,5	6,1	6,6
Txekiar Errepublika	3,5	3,4	3,5	3,5	3,5	3,5	3,4
Danimarka	3,7	3,6	4,6	4,4	4,4	4,5	4,3
Alemania	4,9	4,8	4,5	4,5	4,5	4,3	4,6
Estonia	5,5	5,0	5,0	5,0	5,3	5,4	5,5
Irlanda	4,8	4,4	4,2	4,7	4,6	4,7	4,5
Grezia	6,0	5,9	5,8	5,6	6,0	6,6	6,6
<b>Espainia</b>	<b>5,5</b>	<b>5,7</b>	<b>5,9</b>	<b>6,2</b>	<b>6,3</b>	<b>6,5</b>	<b>6,3</b>
Frantzia	3,9	4,4	4,4	4,4	4,6	4,5	4,5
Kroazia	4,5	4,5	4,3	5,5	5,6	5,4	5,3
Italia	5,5	5,1	5,2	5,2	5,6	5,5	5,7
Txipre	4,4	4,3	4,4	4,5	4,3	4,7	4,9
Letonia	6,4	7,3	7,4	6,8	6,5	6,5	6,3
Lituania	5,9	5,9	6,4	7,3	5,8	5,3	6,1
Luxenburgo	4,0	4,1	4,3	4,1	4,0	4,1	4,6
Hungaria	3,7	3,6	3,5	3,4	3,9	4,0	4,2
Malta	3,9	4,3	4,0	4,3	4,0	3,9	4,1
Herbehereak	4,0	4,0	4,0	3,7	3,8	3,6	3,6
Austria	3,8	4,2	4,2	4,3	4,1	4,2	4,1
Polonia	5,3	5,1	5,0	5,0	5,0	4,9	4,9
Portugal	6,5	6,1	6,0	5,6	5,7	5,8	6,0
Errumania	7,8	7,0	6,7	6,0	6,2	6,3	6,6
Eslovenia	3,3	3,4	3,2	3,4	3,5	3,4	3,6
Eslovakia	3,5	3,4	3,6	3,8	3,8	3,7	3,6
Finlandia	3,7	3,8	3,7	3,6	3,7	3,7	3,6
Suedia	3,3	3,5	3,7	3,5	3,6	3,7	3,7
Erresuma Batua	5,3	5,6	5,3	5,4	5,3	5,0	4,6

Iturria: Eurostat. S80/S20

Taula honetan, 2007tik 2013ra Europar Batasuneko 27 herrialderen S80/S20 ratioa agertzen da, hemen ere Gini Indizearen taulan bezala, 2014 eta 2015eko daturik ez da agertzen.

Hasteko Europako batz bestekoari begiratzen badiogu 2009, 2010 eta 2012 kenduta, 4,9koa zelako, gainontzeko urteetan %20 aberatsenen errenta %20 pobreenek zutena baino 5,0 aldiz handiagoa izan zela ikusten da.

Espainiari begiratzen badiogu krisi aurretik 2007an, 5,5 gehiago zen %20 aberatsenek %20 pobreenekiko irabazten zuten errenta baino eta urteak pasa ahala hazten joan zen, 2013an 6,3 izan zen arte. Beraz, %20 aberatsenek %20 pobreenek baino 6,3 gehiago irabazten zuten. Esan daiteke Europako batz bestekotik gehien urruntzen denetariko bat zela Espainia. Honek esan nahi du krisiarekin, lehendik aberatsak zirenak aberatsago egiten jarraitu dutela eta pobreak gero eta pobreago. Beraz garbi dago bizi dugun garai honetan, gehien sufritzen dutenak bizi maila normal bat duten pertsonak direla eta bitartean gehiena duten pertsonak gero eta boteretsuago bihurtzen doazela.

Esan behar da 2007an Errumanian, %20 aberatsenek %20 pobreenek baino 7,8 aldiz gehiago irabazten zutela, herrialde hau izanik Europako batz bestekotik gehien urruntzen zena. Urte berean Bulgariak (7,0) eta Portugalek (6,5) atzetik jarraitzen zioten. Gainontzeko urteetan ere berauek jarraitzen zuten altuenak izaten baina 2010ean Letonia ere batu zen (7,5) izanik.

2007an Eslovenian %20 aberatsenek %20 pobreenek baino 3,3 aldiz gehiago irabazten zuten eta antzeko zerbait gertatzen zen Txekiar Errepublikak eta Eslovakian 3,5 izanik. Ondorengo urteetan ere ez zen aldaketa nabarmenik gertatu. Hala ere, 2013an behera egin zuen bakarrik Txekiar Errepublikak izan zen 2012an 3,5etik 2013an 3,4ra jaitsiz. Herrialde hauetan lehenago aipatu ditudan beste herrialde batzuetan ez bezala, aberatsenek pobreenekiko irabazten dutena txikiagoa da.

Greziaren kasua ere aipatzekoa da, izan ere, herrialde honetan lehen aipatu ditudan Errumania, Bulgaria eta beste batzuetan bezala %20 aberatsenek %20 pobreenek baino dezente gehiago irabazten dute. Hain zuzen ere, 2007an 6,0 gehiago eta 2008, 2009 eta 2010ean pixka bat jaitsi bazen ere 2013an 6,6 zen. Beraz, Grezian krisiak gogor kolpatu dituela ikusten da, Europako batz bestekotik (5,0) urrun dabilelako eta Espainian gertatzen den bezala aberatsenak aberatsago egiten eta pobreenak pobreago egiten doazelako.

Aipatzekoa da landu ditudan bi adierazle hauek, Gini Indizea eta S80/S20 ez daudela desagregatuta, hau da, ez dago emakume eta gizonen daturik eta ez dakit zergatik den hau. Kasu honetan Eurostatek ematen dituen datuak, generoa kontuan hartu gabe dira, baina esan daiteke bi adierazle hauek errenta desberdintasunak analizatzeko egokiak direla. Generoa kontuan hartuz analizatuz gero, errenta banaketan emakumeak ez daudela leku onean ikusteko balioko lukete

### ***Pobrezia arriskua adina eta sexua kontuan hartuta (Espainia)***

#### **TAULA 5: Pobrezia arriskua, adina eta sexua kontuan hartuta**

Taula honetan Espainiako pobrezia arrisku tasa ikusten dugu generoa eta adina kontuan hartuta. Datuak 2009tik 2013ra bitartekoak dira eta adina, multzotan banatuta agertzen da.

	POBREZIA ARRISKU TASA							
	Gizonak				Emakumeak			
	16tik 29 urtera	30etik 44 urtera	45etik 64 urtera	65 urtetik aurrera	16tik 29 urtera	30etik 44 urtera	45etik 64 urtera	65 urtetik aurrera
<b>2009</b>	16,8	17,3	16,0	21,1	19,8	19,8	16,0	25,9
<b>2010</b>	19,6	18,7	17,0	19,4	23,2	18,9	15,7	23,6
<b>2011</b>	20,5	18,8	17,8	17,5	24,1	20,6	16,3	21,6
<b>2012</b>	24,3	20,5	18,8	14,7	26,3	21,9	17,2	14,8
<b>2013</b>	24,5	20,4	19,4	12,1	23,9	21,1	18,5	13,2

Iturria: INE. Pobrezia arrisku tasa. Norberak egin da

2009an, 16tik 29 urtera bitartean, emakumezkoetan pobrezian erortzeko arrisku tasa handigoa zen gizonezkoetan baino, emakumeena 19,8 eta gizonezkoena 16,8 baitzen. Gainerako urteetan ere hala izan zen, 2013an kenduta. Urte honetan, egoerak buelta eman eta gizonezkoen pobrezia arriskua handiagoa izan zen 24,5 izanik eta emakumeena 23,9. Esan beharra dago, 2009tik 2013ra ia 8 puntu portzental hazi zela gizonezkoen arrisku tasa eta emakumeena ehuneko 4 inguru. Honen arrazoia, krisia dela eta gazteen artean dagoen langabezia tasa altua da. Adin horretan lanean ari ziren mutil askok lana galdu ondoren denbora luzea daramate langabezian. Emakumezkoetan gehiago dira adin tarte horretan oraindik ere ikasten ari direnak, beraz baliteke horregatik 2013an gizonezkoen pobrezia arriskua handiagoa izatea.



30etik 44ra bitartean antzeko zerbait gertatzen da. Bien arteko diferentzia hain handia ez izan arren, 2009an emakumeetan 19,8 eta gizonetan 17,3 eta 2013an emakumeetan 21,1 eta gizonetan 20,4, emakumezkoen pobrezia arriskua zertxobait handiagoa da. Hala ere, proportzioan gizonezkoen pobrezia arriskua gehiago hazi da urte horietan emakumeena baino.

45 urtetik 64ra, egoera desberdina da. 2009an bi sexuek pobrezia arrisku berdina zuten (16,0) eta gainerako urteetan gizonezkoena handiagoa izatera pasa zen. 2010ean adibidez, gizonezkoen arrisku tasa 17,0 zen eta emakumeena 15,7.

65 urtetik aurrerakoetan, pobrezian erortzeko arrisku tasa 2009tik 2013ra gutxi gorabehera erdira jatsi da bi sexuetan, emakumezkoetan 2009an 25,9 izatetik 2013an 13,2 izatera eta gizonezkoetan 2009an 21,1 izatetik 2013an 12,1 izatera. Hau arraroa da baina ez dakit zergatik izan daitekeen. Baliteke krisi garaian errentak jatsi direnez, aurretik pobrezian ez zaudenak pobrezia egoera batera pasa direlako izatea, baina jubilatuek pentsio finko bat dutenez beste batzuekin alderatuz egoera hobeto batean egotea,

## 5) HAUSNARKETAK ETA ERRONKAK

Lan honetan alde batetik, emakumeen inguruan adituak direnen iritzia sartzea ideia ona dela iruditu zait, eta horretarako, sindikatu desberdinetara jo dut, beraien ikuspuntua zein den gertutik jakiteko. Bestetik, gaur egun mahai gainean dauden gaien artean oso entzuna denez lantzen ari naizena, alderdi politikoek gaiaren inguruan dituzten proposamenak ezagutu eta aurten hauteskundeak izan direla aprobetxatuz bakoitzaren aukerak zeintzuk diren jakin nahi izan dut .

### 5.1 Sindikatu desberdinen iritzia

Atal hau egiteko lehendabizi, sindikatu desberdinekin jarri nintzen kontaktuan, ELA, CCOO, LAB eta ESK-ekin hain zuzen ere. Gai honetan ez naizenez aditua galdera simple batzuk planteatu nituen (ikus eranskina) eta horrela elkarrizketak prestatu nituen. Esan beharra dut, lana egiten hasi nintzenean, lotura zuten galderak bata bestearekin lotu nituela atala pixka bat laburtzeko. Horrela bada, hasieran nire asmoa guztiekin pertsonalki elkartzeari bazen ere, azkenean, erosotasunagatik eta

denboragatik ELAko arduradunarekin soilik bildu nintzen pertsonalki eta beste guztiekin posta elektronikoko bidez hitz egin nuen.

Elkarrizketarekin hasteko, krisiaren ondorioz emakumeen lan egoera nolakoa den galdetu nien eta ea beraien ustez krisia momentu egokia al den aldaketa nabarmen bat emateko emakumeen alde.

Galdera honi dagokionez lau sindikatuak bat egiten zuten emakumeen parte hartzea lan merkatuan handitu egin dela esaten. Baina LAB-ek adibidez zioen, parte hartze hori ez dela eman beharrezkoak ziren hainbat aldaketekin batera. Beraz, emakumeen lan merkatutarako sarrera hori behar bezain sendoa izan ez denez, atzeraka egiten ari dela.

ELA-ren iritziz krisi egoera hau, hobeto esan da, “estafa” egoera bat da eta horrelako egoeretan gertatzen den bezala, kaltetuenak gazteak (mutilak zein neskak), emakumeak eta etorkinak dira.

CCOO-n esanetan krisia hasi zenetik gizonezkoak dira gehien kaltetu direnak, krisia batez ere industria eta eraikuntzan hasi baitzen eta sektore hauetan gizonezkoak ziren lan egiten zuten gehiengoak. Baina pixkanaka sektore guztietan eragin du eta azkenik zerbitzuen sektorerara ere iritsi da, non bertan lan egiten duten gehiengoa emakumeak diren. Esan beharra dago murrizketak direla eta, zerbitzuen sektorea izan dela bereziki kolpatuena eta beraz enplegu suntsiketa handiena ematen ari den sektorea, ondorioz emakumeen langabezia tasa altuagoa da.

Azkenik, ESK-k dio emakumeen parte hartzea lan merkatuan denborarekin hazten joan dela baina ez dela eman gizonezkoen neurri berdinean. Krisiarekin enplegu suntsiketa gertatu dela bai emakumeetan eta baita gizonetan ere eta esaten du lan merkatua aukera urriengatik utzi baino gehiago, bidaliak izan direlako dela.

Honez gain dio, ez dela oso garbi ikusten krisi egoera beste edozein momentu baino hobeagoa denik emakumeen alde aldaketa bat emateko. Egoera honetan emakumeok bizi dugun arriskua zera da, orain arte berdintasunean egindako aurrerapausoak atzerakada izatea. Hauen hitzetan, orain dugun lehentasuna galdutako eskubide laboralei eta soldatei erantzuna ematea da, egoera batzuetan alde batera utziz gizon eta emakumeen berdintasuna lortzeko borroka lan leketan. Beraz, ez dugu arreta

galdu behar, izan ere krisitik irteteko momentuan baliteke emakumeak krisia hasi aurretik genuen egoera baino okerrago geratzea.

Krisi egoera ekonomiko hau aprobetxatu beharko genukeela dio LAB-ek agerian uzteko egungo eredu hau ez dela egokia. Beraz, hein handi batean krisia momentu egokia dela uste du ELAk emakumeen alde aldaketa nabarmen bat emateko. Batez ere, sektore batzuetan sartzeko, industria sektorean esaterako. Beti izan da industria gizonezkoen lana eta duela hogeita hamar urtetik ona aurrerapausoa eman bada ere emakumeak sektore honetan lanean hasiz, oraindik ez da behar bezalako sarrera eman.

Aurrekoarekin lotuta, CCOO-k dio enpresetan berdintasuna lortzeko egiten diren planekin eta hartzen diren neurriekin jarraitu beharra dagoela negoziazio kolektiboak eginez, horrela, emakumeek kalitatezko enpleguak lor ditzaten eta enpresa jarrera baztertzailerak eta sexistak behingoz alde batera uzteko.

Beste galdera bat oztopoei buruz izan da. Hau da, emakumeek lan merkatuan sartzeko aurkitzen dituzten oztopo nagusienak zein diren eta zeintzuk diren konpondu beharreko lehentasunak.

Lehenik eta behin kontuan hartu behar da emakumeontzat lan merkatuak gaur egun oraindik diskriminazio mundu bat izaten jarraitzen duela, hori dio LAB-eko emakumeen arduradunak.

Ados daude lau sindikatuetakako kideak egun oraindik dauden oztopoen artean, emakumeoi seme alabak ditugun edo izango ditugun galdetzen zaigunean oztopoak ezartzen direla enplegua lortzerako orduan, nahiz eta hau praktika ilegala izan. Soldata bereizkeria ere bistakoa den oztopoa da. Izan ere, emakumeek gizonezkoek baino gutxiago kobratzen dute lan berdina egiteagatik eta hori XXI. mendean onartezina dela diote. Lan kontratazioari dagokionez, jardunaldi partzialean dauden langileen ia %90 emakumeak direla dio ELAk eta honek dakarren guztiarekin langabezia ere desberdintasunak daudela dio CCOO-k. Hain zuzen ere, soldata baxuagoa izateak, lan aldi partzialean lan egiteak, lan eskubide gutxiago izateak... langabezia ere prestazioak urriagoak eta eskasagoak izatea eragiten du. Hau guztia nahikoa ez eta, ESK-k dio curriculum berdina eta prestazio berdina izan da, lanpostu bat betetzeko orduan, enpresak gizonezkoak kontratatzea nahiago dutela oraindik ere.

Konpondu beharreko lehenetasunen artean, lanaren banaketa justuago bat egin behar dela diote lauek eta horrela gizon eta emakumeen bereizketarekin bukatu.

Alde batetik, emakumeak azpi baloratuta dauden enpleguak eta sektoreak bultzatu behar dira, hezkuntza politiken bidez. Adibidez, ELAk dio enplegu berdean (energia ekologikoaren mundua) emakumeek beren tokia izan behar luketela, oraindik sektore horretan industrian bezala gizonezkoak direlako gehiengo. Gainera egoera zailenean daudenei, hau da, gazteei, 45 urtetik gorakoei, luzaroan langabezia daudenei eta gizarte bazterketa jasateko zorian dauden emakumeei, lehenetasuna eman behar zaie.

Beste aldetik, egun dugun sistema hau, emakumeak etxeko lanez eta familiaz arduratzeko eta gizonezkoak etxera dirua ekartzeko dago eraikia eta beraz, familia eta lana bateratzeko neurriak ezarri behar dira. Bereizketa ekonomikoa jasaten dutenen ehuneko handia emakumeek jasaten dute, eta beraz, gizonezkoek aitatasun baja hartzea, utzialdiak eta lanegun murrizketak hartzea, bultzatu behar da, horrela etxeko lanetan laguntzeko aukera gehiago izateko. Baina hauek derrigorrezkoak ez diren bitartean, ez da asko aldatuko egoera, sistemari ez zaiolako interesatzen dio ESK-k.

	ELA	CCOO	LAB	ESK
Noiz	21/01/2015	31/01/2015	01/02/2015	10/03/2015
Nola	Pertsonalki	Korreo bidez	Korreo bidez	Korreo bidez
Arduradunak	Urola kostako arduraduna	Emakumeen arduraduna Euskadin	Emakume idazkaritzako arduraduna	Genero arloko arduraduna

## 5.2 Gaur egun mahai gainean dauden gaiak

Jadanik hamar urte pasa dira Eusko Legebiltzarrak Emakumeen eta Gizonen



Berdintasunerako Legea onartu zuenetik. Hain zuzen ere, 2005eko otsailaren 18an onartu zen Legea eta hamar urte hauetan indartu egin dira berdintasunaren alde lan egiten duten egiturak, erakundeak etab. Horregatik, Gobernu Kontseiluaren ustez, Berdintasunaren Lege hau eta hitzartu ziren helburu guzti horiek

aurrera eramateko gizarte osoaren laguntza beharrezkoak dira. Izan ere, aurrera pausu handiak eman badira ere oraindik badago zereginik. (Irekia, 2015)

Emakunde-ko (Emakumearen euskal erakundea) zuzendaria den Izaskun Landaidak Lege honen garrantzia azpimarratu zuen otsailaren 17an Gasteizen, Emakundek eman zuen hitzaldi batean. Bertan, Lege honek berdintasunaren inguruan puntu eta aparte bat ezarri zuela esan zuen. Izan ere, emakumeen presentzia politika arloan erabakiak hartzeko orduan hazi egin da. Honez gain, udaletxeetan, diputazioetan eta Euskal Gobernuan emakume gehiago kontratatzerara pasa dira. Eta batez ere, azpimarratu zuen, emakumeei zuzentzeko erabiltzen den hizkuntza aldatu dela, orain errespetu gehiagorekin eta gutxietsi gabe hitz eginez. (El Correo, 2015)

### *5.2.1 Espainia*

Espainian berriz, alderdi politiko desberdinek, orain aipatuko ditudan proposamenak dituzte gaiaren inguruan. Elekzioak maiatzean izan ziren eta ordura arte alderdi bakoitzak kanpaina egin zuen.

Martxoaren 13an, PSOE-k Legegintzakoak ez ziren bi proposamen aurkeztu zituen Espainiako gizartea genero berdintasunera hurbiltzeko. Lehenengoa, prostituzioa estatuko BPGaren barruan ez kontabilizatzea eta emakumeen etxeko lana ekoizpen jarduera modura baloratzen hastea. Bigarrena, zaintza lanak berdin banatzen hastea eta soldata berdintasuna gizon eta emakumeetan. Honez gain, 2015eko maiatzaren 17an Pedro Sánchez-ek soldata berdintasunaren aldeko ekimen bat proposatu zuen. Honetarako enpresetan hainbat neurri hartzen hasiko zirela esan zuen. (El Huffington post, 2015)

PP-ren (Partido Popularra) konpromisoa gizon eta emakumeen berdintasunaren aldeko borrokan jarraitzea da, inongo kuotarik gabe eta edozein oztopo kendu eta pertsonak baldintzatzen ez dituzten proiektu politikoekin aurrera eginez. Pertsonak dituen gaitasun guztiak aprobetxatu behar direla diote, bere statusa kontuan hartu gabe, horrela aukera handiagoak dituen gizarte bat eraikitzeko guztientzat. (Europa Press, 2015).

Martxoaren 3an Podemosek dokumentu bat aurkeztu zuen. Dokumentu horretan, neurri batzuen bidez gizon eta emakumeen berdintasuna sartu zuen zeharka beren egitarau ekonomikoan. "Laguntza-sistema Berrantolatu" da dokumentu honen izena,

susperraldi ekonomikoan eta demografiaren aurrerapenean beharrezko baldintza. (Henández María, 2015)

Izquierda Unidak (IU) dio, beraiek defendatzen duten gizarte-ereduan emakumeak errekonozituta daudela eta beharrezkoak direla demokrazia justu eta ekitatibo bat lortzeko. (IU, 2015)

Ciudadanosek berriz, hainbat puntutan aldaketa emateko asmoa erakutsi zuen bere kanpainan. Gizon eta emakumeen soldata desberdintasunarekin amaitzea eta hau kontrolatzeko ikuskapen gehiago jartzea, diskriminazioa salatzeko bulego edo doako telefono zerbitzua jartzea eta kuota sistema baztertzea berdintasuna lortzeko neurri modura. (El Diario, 2015)

Elekzioen aurretik egindako kanpainetan alderdi guztiek era batera edo bestera, erakutsi zuten genero desberdintasunarekin amaitzeko zerbait egin behar zela. Bakoitzak bere modura baina guztien helburuen barruan sartzen zen emakumeen aldeko borroka egitea.

### 5.2.2 EAE

Euskadin Gipuzkoako Diputazioak, 2014ko abenduaren 15ean aurkeztu zuen Batzar Nagusian, berdintasunaren lehenengo Foru Legea. Politika Sozialeko diputatua den Ander Rodriguez-ek eta berdintasunaren zuzendaria den Laura Gomez-ek, Berdintasun Politiken Batzordearen, Giza Eskubideen eta Oroimen historikoaren aurrean aurkeztu zuten berau. (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2015)

Lege honen helburua, emakumeak ez direla diskriminatzen ez kontratuetan, ez laguntzetan, ez politika publikoan edo Gipuzkoako diputazioak egindako lan eskaintzetan, aztertzea da.

Rodriguezek azaldu zuen lege honen bidez, kontrol eta gainbegiratze mekanismoak ezarriko zirela instituzioaren erabaki guztietan. Gainera, ogasuna, kirola, gizarte-politika, mugikortasun edo oroimen historikoa bezalako arlo ezberdinetan gizon eta emakumeen arteko diskriminaziorik egon ez dadin azpimarratu zuen. (El País, 2014)

2015ean gizon eta emakumeen berdintasunerako 2/2015 martxoaren 9ko Foru Araua ezarri zuten Gipuzkoako Buletin Ofizialean. Bertan emakumeen eta gizonen berdintasunerako organoan hainbat puntu azpimarratzen dituzte. Hala nola, bultzada,

koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa eskualdeko politiken berdintasunerako. Udaletan, emakume eta gizonen berdintasunerako baldintza egokiak hartzen dituzten neurriak ezartzea. Gipuzkoako Lurralde Historikoan feminismoa indartzeko neurri egokiak hartzeko laguntza bermatzea. Herritarren sentsibilizazioa genero desberdintasunagatik eta berdintasunaren alde... ikusten da genero berdintasunaren aldeko neurriak badaudela, baina egia esateko nire lanarekin lotuta, soldata edo errenta berdintasunaren aldeko punturik ez da agertzen. (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2015)

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokionez, beraien erronka gizon eta emakumeen berdintasuna benetakoa egiten duen gizarte bat eraikitzea da. Helburu horri erantzuteko, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaiko Lurralde Historikoko emakume eta gizonen arteko berdintasun politikak bultzatzen ditu, baita horien programazioa, aholkularitza eta ebaluazioa ere. (Bizkaiko Foru Aldundia, 2015)

Arabako Foru Aldundian berriz, ez dut ezer aurkitu genero berdintasunaren inguruan. Suposatzen dut hemen ere gainontzeko probintzietan bezala egongo direla neurri batzuk gaiaren inguruan, baina begira ibili naiz eta ez dut lortu informaziorik.

## 6) ONDORIOAK

Lanari amaiera bat emateko asmotan ondorio batzuk azaltzera pasatuko naiz. Alde batetik, lanaren ondorioak aterako ditut, baina bestetik, haratago ere joango naiz eta lan hau egiteak erakutsi didanaz ere hausnartuko dut.

Hasteko, esan beharra dut lan osoan zehar joan naizela ondorioak ateratzen, izan ere hainbat grafiko eta taula komentatu beharra izan dut eta beraz, berriro errepikatu gabe labur-labur esan nahi nuke atera dudana ondorio orokor bat zera izan dela; teoriar denok dakigun arren emakumeak eta gizonak berdinak garela, errealitatean ez dela hori gertatzen eta XXI. Mendean oraindik existitzen direla genero desberdintasunak lan merkatuan.

Honez gain esan beharra dut, niretzat lanean hain garrantzitsua izan den sindikatuen iritziari dagokionez, ez dudala beraien artean gaiari buruzko desadostasunik aurkitu, guztiz kontrakoa, antzeko iritzia dute. Baita ere esan nahi nuke, mahai gainean dauden gaien artean landu dudana oso entzuna dela eta garrantzi gutxiago edo

gehiago eman ez alderdi politiko guztiek aintzat hartzen dutela genero desberdintasuna, krisiaren ondorio nagusia delako Espainian eta EAEn.

Ondorio orokor horrez gain esan, lan honek eman didan informazioa oso baliagarria izan zaidala, baina beste gauza batzuetarako ere balio izan dit. Izan ere, emakumeen egoera hobeto ulertzen eta gaiarekiko beste ikuspuntu bat izaten lagundu dit. Hau horrela izanda, etorkizunean nire bizitzan, aspektu honetan adituago izatea baliteke lagungarri izatea.

Kontzeptuaren alderdiak alde batera utzita, esan beharra dut lan hau egiteak asko irakatsi didala. Bildutako informazio guztiak profesionalki asko eman badit dit ere, informazioa bilatzerakoan egindako lana ez da gutxiagorako izan. Hemendik aurrera, nire burua gai ikusten dut informazio bilketa on bat egin eta hori kudeatzeko. Esan bezala, lan honetako informazioa oso interesgarria izan den arren, lortu dudan kompetentzia honek ahalbidetzen dit etorkizunera begira beste edozein gairen aurrean lan txukun bat egitea.

Honekin batera, antzeko zerbait gertatu zait grafikoen eta taulen interpretazioarekin. Bertako edukiak eta ondorioak alde batera utziz, asko ikasi dut grafikoen interpretatzerako garaian eta baita horietatik ondorioak ateratzean ere. Lan mundura begira, egunen batean grafikoen lantzea egokitzen bazait, horri aurre egiteko prest nago.

Bukatzeko gehitu nahi nuke, lan honetako atal bat egiterakoan hainbat sindikatutara jo dudala eta iritzi profesional bat sartzea lanean asko gustatu zaidala. Sindikatu bakoitzarekin harremanetan jartzea eta era batera edo bestera elkarrizketa txiki bat izateak bere denbora eman badit ere, gustura geratu naiz emaitza horrekin. Beraz, esateko geratzen zaidan gauza bakarra da lana pertsonalki ez ezik profesionalki ere lagungarri izan zaidala eta hemendik aurrera nire burua beste horrelako lan potolo bati aurre egiteko gai dela ikusteko balio izan didala.

## 7) ERANSKINA

- 1) Azken hamarkadetan emakumeak lan merkatuan gero eta gehiago sartzea lortu dute, baina, sarrera hori behar bezain sendoa da, edo krisiaren ondorioz



atzeraka egiten ari da berriz? Hau da, hainbat emakume (eta gizon) lan merkatua uzten ari dira enplegua lortzeko aukera urriengatik etsita?

- 2) Zeintzuk dira emakumeek lan merkatura sartzeko aurkitzen dituzten oztopo nagusienak? Genero ikuspuntutik zeintzuk dira desberdintasunak? Duela 30 urte eta gaur egun arazo berdinak izaten al dituzte emakumeek?
- 3) Estatistikek diote, unibertsitate ikasketa dunen ehuneko emakumeena handiagoa dela, baina oraindik ere ardura handiko lanpostuetan emakumeen oso ehuneko txiki bat bakarrik dago lanean, zer dela eta da hau?
- 4) Zuen ustez, momentu egokia al da krisia aldaketa nabarmen bat emateko emakumeen alde?
- 5) Zeintzuk dira zuen etorkizuneko perspektibak lan merkatuan, hau da, non ikusten dituzue emakumeak, zein enplegu berritan, zein sektoretan?
- 6) Zeintzuk dira berdintasun laboralera iristeko konpondu beharreko lehentasunak?

## 8) BIBLIOGRAFIA

### References

- Bizkaiko Foru Aldundia. (2015). Emakume eta gizonen arteko berdintasuna. Retrieved from [http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem\\_Codigo=159&idioma=EU&bnetmobile=0&dpto\\_biz=3&codpath\\_biz=3|3797|159](http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=159&idioma=EU&bnetmobile=0&dpto_biz=3&codpath_biz=3|3797|159)
- Carrasco Bengoa, M. C. (2014). *Con voz propia :La economía feminista como apuesta teórica y política* La Oveja Roja.
- El Correo. (2015). Emakunde celebra los 10 años de la ley de igualdad que califica de "hito". Retrieved from <http://www.elcorreo.com/agencias/pais-vasco/201502/17/emakunde-celebra-anos-igualdad-314901.html>

El Diario. (2015). Las propuestas para la igualdad en los programas electorales del 22 de marzo. Retrieved from [http://www.eldiario.es/andalucia/eleccionesandalucia2015/propuestas-igualdad-programas-electorales-marzo\\_0\\_364313569.html](http://www.eldiario.es/andalucia/eleccionesandalucia2015/propuestas-igualdad-programas-electorales-marzo_0_364313569.html)

El Huffington post. (2015). La ofensiva de PSOE a favor de la igualdad de género. Retrieved from [http://www.huffingtonpost.es/2015/03/13/psoe-igualdad-genero\\_n\\_6863234.html](http://www.huffingtonpost.es/2015/03/13/psoe-igualdad-genero_n_6863234.html)

El Mundo. (2008). El crah de 2008. Retrieved from [www.elmundo.es/especiales/2008/10/economia/crisis2008/](http://www.elmundo.es/especiales/2008/10/economia/crisis2008/)

El País. (2014). Gipuzkoa presenta la primera norma foral de igualdad del país vasco. Retrieved from [http://ccaa.elpais.com/ccaa/2014/12/15/paisvasco/1418665619\\_215946.html](http://ccaa.elpais.com/ccaa/2014/12/15/paisvasco/1418665619_215946.html)

Emakunde. (1995). Emakumeen gizarte-paperak izan dituen aldaketak. euskadiko garapen egoerari buruzko azterketa. Retrieved from [http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pub\\_informes/eu\\_emakunde/adjuntos/informe.10.transformaciones.papel.social.mujeres.eus.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pub_informes/eu_emakunde/adjuntos/informe.10.transformaciones.papel.social.mujeres.eus.pdf)

Europa Press. (2015). Sanz resalta que el compromiso de PP "es luchar por la igualdad entre hombres y mujeres sin ningún tipo de cuotas". Retrieved from <http://www.20minutos.es/noticia/2397944/0/sanz-resalta-que-compromiso-pp-es-luchar-por-igualdad-entre-hombres-mujeres-sin-ningun-tipo-cuotas/>

Gálvez Lina, & Torres Juan. (2010). *Desiguales :Mujeres y hombres en la crisis financiera* Icaria.

Gipuzkoako Foru Aldundia. (2015). Gizon eta emakumeen berdintasunerako 2/2015 martxoaren 9ko foru araua. Retrieved from [http://noticias.juridicas.com/base\\_datos/CCAA/548507-nf-2-2015-de-9-mar-gipuzkoa-para-la-igualdad-de-mujeres-y-hombres.html](http://noticias.juridicas.com/base_datos/CCAA/548507-nf-2-2015-de-9-mar-gipuzkoa-para-la-igualdad-de-mujeres-y-hombres.html)

Henández María. (2015). La igualdad de género, una laguna en el discurso de los hermanos syriza y podemos. Retrieved from <http://www.elmundo.es/espana/2015/01/28/54c8ba7222601d0d6e8b4572.html>

Irekia. (2015). Adierazpen instituzionala, emakumeen eta gizonen berdintasunerako legearen X. urteurrenean. (2015/02/17ko) kontseiluan hartutako erabakiaren laburpena. Retrieved

from [http://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/24639-adierazpen-instituzionala-  
emakumeen-eta-gizonen-berdintasunerako-legearen-urteurrenean-2015-kontseiluan-  
hartutako-erabakiaren-laburpena](http://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/24639-adierazpen-instituzionala-<br/>emakumeen-eta-gizonen-berdintasunerako-legearen-urteurrenean-2015-kontseiluan-<br/>hartutako-erabakiaren-laburpena)

IU. (2015). Mujeres e igualdad. Retrieved from [http://iu-cordoba.org/programa/politicas-  
sectoriales/mujeres-e-igualdad/](http://iu-cordoba.org/programa/politicas-<br/>sectoriales/mujeres-e-igualdad/)

Joan. (2014). El coeficiente de Gini. la distribución de la riqueza. Retrieved from  
[http://www.desenvolupamentsostenible.org/index.php?option=com\\_content&view=ar-  
ticle&id=233&Itemid=266&lang=es](http://www.desenvolupamentsostenible.org/index.php?option=com_content&view=ar-<br/>ticle&id=233&Itemid=266&lang=es)

La caixa. (2010). La economía del país vasco: Diagnóstico estratégico. Retrieved from  
<http://www.sepe.es/LegislativaWeb/verFichero.do?fichero=09017edb800da424>

Larrañaga Sarriegi Mercedes. (2002, Desigualdades entre mujeres y hombres en el mercado  
laboral. *Comunicación En VIII Jornadas De Economía Crítica, 2014*)

Mujeres&Cia. (2012). Mujeres trabajadoras: El 83% en el sector servicio. Retrieved from  
[http://www.mujeresycia.com/index.php?x=nota/50185/1/mujeres-trabajadoras-el-83-  
en-el-sector-servicio%C3%A7](http://www.mujeresycia.com/index.php?x=nota/50185/1/mujeres-trabajadoras-el-83-<br/>en-el-sector-servicio%C3%A7)

Ormaetxea Amaia. (07/03/2012). Las mujeres trabajadoras, siempre en crisis <br /> Retrieved  
from <http://www.expansion.com/2012/03/07/economia/1331120795.html>

Pérez Guillermo. (2008). Crisis financiera mundial de 2008. Retrieved from  
[http://www.crashbolsa.com/crisis\\_financiera\\_mundial\\_de\\_2008](http://www.crashbolsa.com/crisis_financiera_mundial_de_2008)

Rodríguez Arantxa eta Larrañaga Mercedes. (2012). El tiempo de trabajo y su distribución por  
sexon en la comunidad autónoma vasca. Retrieved from  
[http://www.ehu.eus/ojs/index.php/Lan\\_Harremanak/article/view/6762/6208](http://www.ehu.eus/ojs/index.php/Lan_Harremanak/article/view/6762/6208)

Rueda Narváez, M. F. (2010). *Discriminación salarial por razón de género y capital humano :Un  
análisis con datos de panel* Civitas Thomson Reuters.

V. Andres. (2015). ¿Qué es el salario mínimo? Retrieved from <http://www.salariominimo.es/>